

# Mixel Esteban

Donibane Lohizune, 1961. HEDA prentsa agentziaren sortzailea. *Euskaldunon Egunkaria* eta *La Semaine du Pays Basque*ko kazetaria izana. Egun, Miarritzeko Udaleko *Biarritz Magazine*aren arduraduna da. EMA alderdiaren sorreraren partaidea. Historia ikastea nahikaria izan zuen, horretarako Bordelera joan beharra zegoen ordea, eta gurasoak gazterik galdu zituenez, Baionan Zuzenbidea ikasi zuen; lana eta ikasketak aldizkatuz. *Regards sur La Seconde Guerre mondiale en Pays Basque* (Elkar) liburuaren egilea da.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz



## «`Gorriak` hasieratik sartu ziren erresistentzian `xuriak` berantago»

*Regards sur La Seconde Guerre mondiale en Pays Basque* liburuak argazki batean du abiapuntua. Atlantikoko Murrua eraiki lanetan aritutakoak ageri dira argazkian. Alemaniarrak Hendaiatik Norvegiaraino eraikiarazi zuten murrua, iparramerikarren eta ingelesen aldetik itxaron zuten ofentsiba geldiarazteko. Argazkian Michel Bigot dago. Liburuaren egile Mixel Estebanen osaba.

### Nola sortu zitzaizun liburuaren ideia?

Historia aztertzen hasi nintzen baina libururik argitaratzeko xederik gabe. Gaztetan, gurasoen etxeko sukaldian argazki bat genuen, amaren anaia, gure osaba Michel ageri da Donibaneko

hondartzan. Bagenekien 17 urte zituela eta alemaniarren kontrako gerlan hil zela, besterik ez. Anaiok osabaz galdatzen genuenean amatxi eta ama tristatzen zirenez, isiltzen ginen.

### Liburua osatzen noiz hasi zinen, berriz?

Kazetari lanetan hasi nintzelarik. Etxeko gauzen artean gehiago miatu nuen eta osabaren gutun ofizialak atzeman nituen, frantses administrazioak igorriak. Gerlaren ondorengo gutunak ziren, pentsioa eta errekonozimendua galdatzen zituztenak. Gerlan hil baitzen, baina ez zen errekonozimendurik ez pentsiorik ukan. Hil zen eta kito. Alemanian deportatua hil zela jakin

nuen. Bi presondegia eta bi kontzentrazio-esparru ezagutu zituen, lan behartuetan bortxatua izan zen. 17 urterekin izan zuen kuraiak hunkitu ninduen.

### Osaba nerabearen garaia nolakoa zen?

Bera euskaraz mintzo zen. II. Mundu Gerra aitzin frantsesa azkarki sartu zen eskoletan eta euskaraz mintzatzea debekatu zieten. Pentsa, behin batean nire ama "ez dut euskaraz mintzatu nahi, nirekin frantsesez egin behar duzu" erran zion amatxiri. Amatxiren arrapostua "enekin euskaraz ariko zara" izan zen. Haurrek etxean ere frantsesez egitea galdatzen zuten, eskolatik ahalketurik etxeratzen ziren.



Eta nire familia ez zen abertzalea, nire familia *gorria* bezala joa da Donibane Lohizunen. Garai hartan gizartea *gorriak* eta *xuriak* banandua zen.

#### Amaren familia euskalduna eta gorria zenuen beraz.

Amaren familia artisaua zen, amatxik ilepaindegia zuen. *Gorrien* eta *xurien* muga eskolan ageri zen. *Gorriak* eskola laikora joaten ziren eta *xuriak* pribatua. Nire anaiek eta nik eskola pribatuan ikasi genuen, anaiek arazoak izan zituztelako irakasle sozialista batekin. Irakasle honek ez zituen merkatariak begi onez ikusten. Donibane Lohizune berezia zen, merkatariak *gorriak* ere baziren. Tradizionalistek ez zuten horrenbeste indar bertan. Espainiatik zetozenak langileen seme-alabak ziren, pobreak, eta nahiz politikaz deus jakin ez, hemengoentzat *gorriak* ziren.

#### Zure aita berriz nongoa zen?

Donibandarra zen, Lohizunekoa. Baina bere gurasoak espainolak ziren, Burgos eta Valladolidekoak. Bi mundu gerlen artean heldu ziren hona. Alta, ez ziren erbesterratu politikoak, ezta arrazoi ekonomikoengatik etorriak ere. Aitaren amaren familia burgesa zen, erregezalea, zerbitzariak zituen etxean. Bere aita berriz artista zen. Espainia tradizionalan ezkontzea zaila zuten eta ihes egin zuten. Pobreak ziren baina kultura zuten.

Aitatzik *Balearen ehiza* margoa pintatu zuen Bordagain dorrean, freskoak margotzen zituen elizetan.

#### Liburuaren abiapuntua argazkia izan zela erran dugu...

Beraz, argazkiko osabaren lagunez interesatu nintzen. Bat bizi da: Dacosta. Beste bi gehiago ere ezagutu ditut. Beste bi deportatuak hil ziren. Haien artean dagoen alemaniar soldadu zaintzailea ez zen alemaniarra, txekoslovakiarra baizik: Peter, hemezortzi urtekoa. Alemanek bahitua zuten nolabait. Lagunek desertore bilakatzea proposatu zioten. Ezetz erran zien. Naziak familia hilko zioten beldur bizi zen. Ikertzen segituen eta 1993an, gerraren 50. urtemuga kari, haien omenez artikulu bat idatzi nuen *Euskaldunon Egunkarian* lehen aldikoz. Liburu osatzen segituen harrezkerok.

#### Nolakoa izan da esperientzia?

Artxibo lana ez da aise. Ikerketa egin duzularik informazioa ongi egiaztatu behar duzu, ondo zaindu iturriak. Pertsonen nondik norakoak dokumentuetan aurkitutako datuetan oinarritu ditut. Artxiboak oinarriak badira ere, idatziak dauden gauza guztiak ezin dituzu egiazkotzat jo. Edonola ere, agiriak kontrastatzen dituzu eta errealitate bat aurkitzen duzu, ez errealitate osoa beharbada.

**“Alemaniarrekin kolaboratu zutenen familia kideak ez datoz hitzaldietara” diosku Mixel Estabanek. Atzean alemaniarrek Miarrizten eraikitako bunkerra. Eskuko argazkian bere osaba Michel Bigot dago, liburuaren eragilea eta abiapuntua.**

Pertsona hauek ez zuten ezer idatzi, eta kontatu ere oso gutxi. Gerraren memoria galtzen ari zela oharturik lanari lotu nintzaion.

#### Bost hitzaldi eskaini dituzu liburuan oinarrituak. Nolako harrera ukan duzu?

Eskualdeen arabera interes ezberdinak kausitu ditut. Nabariak dira erresistentzia indartsua izan ziren herriak. Haue-tan jendea hitzaldietara dator familiak zuzenki hunkituak direlako. Interesaturik daude eta liburu erosten dute. Alemaniarrekin kolaboratu zutenen familiarrak ez dira heldu, bistan da.

#### Hendaiako hitzaldian bigarren liburu bat osatzeko gaia dagoela ageri zen.

Bai. Gerla aitzoneko egoera ezagutze-ra emateko beste liburu bat idatzi nahi nuke, adibidez, gerlaren arrazoiak aditzera emateko. Gerlako itsuskeria ulertzeko funtsezkoa da gerla aitzoneko egoera soziopolitiko ulertzea: Frantzia nahiz Alemanian, Espainian zein Italian. Abiapuntua krisi ekonomikoa izan zen. 1930eko hamarkadan immigrazio izugarria heldu zen Europako ekialdetik, juduen nahiz komunisten aurkako jazarpen izugarriak izan ziren. Elizak bere azken hatsa sentitu zuen nolabait, boterea galtzeko beldur, eta botere faxistara hurbildu zen. Frantzia Vichiko Gobernuaren ondoan jarri zen, Petain mariskalaren alde.

#### I. eta II. Mundu Gerra arrazoi ezberdinez lehertu zirela azaldu duzu.

Lehen gerla handia lurrikara sozialaren ondoren izan zen eta bigarrena berriz lurrikara sozial, politiko eta ideologikoren ondorioz. Eliza aldatu zen, gorriak eta komunistak aldatu ziren. Aldaketek mendearen erditik 1968ra bitartean segitu zuten. 68ko maiatzaren espiritua, hein batez, gerlaren ondorioz gauzatu zen. Gerra zibilaren beldurra ere izan zen garai horretan. I. Mundu Gerra ez bezala, II. Mundu Gerra ez zen lurraldeen nagusitasuna irabazteko gerra. Ekonomia arazoak zeuden, baina ideologia krisia izan zen motore nagusia.

**Juduen garbiketa ere aipatu duzu.**

Euskal Herriko juduen kanporaketak horrenbestekoak izateak harritu ninduen, 132 judu izan ziren deportatuak. Alemaniarrak armada heldu zenean, ez herritarrek, baina botereak juduak ez zituela frantziartzat hartzen argi dago. Gerla aitzin jada, Europako ekialdeko Hungaria, Errumania eta Poloniatik ihesi etorritako judutarrrekiko jarrera oso gaiztoa zen. Frantses administrazioaren jomuga izan ziren Ipar Euskal Herrian ere.

**Vichiko Gobernuarena, alegia.**

Bai. Hemengo herriko etxeetan, jendarmerietan eta Baionako suprefekturan fite aplikatu ziren Vichiko Gobernuaren aginduak. Petainek hartu zuen botere osoa, krisi gobernu bere gisara antolatuz. Diputatuak ez ziren agertzen Parisko Asanbleara eta batzuk ministro bilakatu ziren berez.

**Horietako bat Jean Ibarnegaray zen.**

Baiki. Uharte Garazikoa. Diputatu, euskalduna eta fededuna, kontserbadorea. Kontserbadoreak Elizaren hurbileko tradizionalistak ziren. Gaur egunetik so eginik harrigarria da, Miarritze *gorria* zen, eta barnealdea berriz *xuria*. *Xuriak* ez ziren faxistak noski, baina Ibarnegaray hautatu zuten. Jende anitzek ez zekiten irakurtzen, hauteskunde mahaikoen menpe ematen zuten boza. Pentsa, Ibarnegarayk Hego Euskal Herriatik ihesi heldu zirenen kontrako neurriak eskatu zituzkion Vichiko Gobernuari. 800 bat euskaldun atxilotu eta Gurs kontzentrazio-esparrura eramane zituzten Jean Ibarnegarayk galdeturik. *Gorriak*

izateagatik, besterik gabe. Eta denak ez ziren holakoak.

**Eskualduna agerkaria ere nazien kolaboratzaile ageri da historian.**

Adibide bat da. Alemaniarrak heldu ziren eta ez zuten debekatu, kolaboratzen segitu zuen. Parrokien aldizkaria zen. Alemaniarrak kanporatuak izan zirenean punitua izan zen.

**Erresistentzia nolakoa izan zen hemen?**

Batzuk *patriotisme* zela kari sartu ziren erresistentzian, Frantziarreki-ko atxikimenduagatik. I. Mundu Gerraren segidan, frantsesak ziren

“800 bat euskaldun atxilotu eta Gurs kontzentrazio-esparrura eramane zituzten Jean Ibarnegarayk galdeturik.

*Gorriak izateagatik, besterik gabe”*

arras. Beste batzuk, Espainiatik eta Hegoaldetik etorritakoak ziren. Hauek ideologia naziaren kontra borrokatu zuten bereziki, *gorriak* ziren. *Gorrien* artean ere Frantziaren aldekoak eta ideologia naziaren kontrakoak baziren. Baina diferentzia bat agerikoa da: *Gorriak* hastapenetik aritu ziren erresistentzian eta *xuriak* aldiz, orokorrean ari naiz, beranduago sartu ziren. *Xurien* kopurua handitu zen eremu libreak irabazi ahala. *Gorriak* eta *xuriak* naziak batu zituzten nolabait. Europaren aldeko borrokan engaiatu ziren biak. Jean-Louis Davantek

*Zuberoako Maki* pastoralearan biziki ongi agertu du garai hartako giroa, bi *maki* mota zirela agertuz.

**Franco eta falangea aipatzen dituzu liburuan eta hitzaldian.**

Falangistak ideologia naziaren ildokoak ziren arras. Francoren inguruan ziren, eta Franco boterea atxikitzeke prest zegoen Hitler eta Mussolini-ri segitzeke, baina zaila zuen Eliza ez baitzen guztiz ados. Espainia hil zorian zegoen: gosea, ekonomia desegina eta gerra zibila bizirik zegoen, eta Francok ez zekien nola jokatu. Francok Elizarekin zerbait egin zezakeela ikusi eta Elizaren ondoan jarri zen, boterea hor zela ohartu zen. Francok 15.000 falangista bidali zituen 1941ean Errusiako frontera, komunismoaren kontra borrokatzera, faxismo naziaren alde zeuden sutsuki. Francok bere ingurua zatitzen eta kontrolatzen jakin zuen.

**Frantsesen artean ere naziak ziren, LVF (Légion des Volontaires Français) delakoan.**

Alemaniarraren uniformeak jantzen zuten, frantses faxistak ziren arrunt. Ez ziren ongi moldatzen Petainekin, erlijioa zela kari. Nazional-sozialistak ziren, kapitalismoaren eta komunismoaren aurkakoak, ateismoa zabaltzea xede zuten, ateismoa baino nihilismoa zabaldu nahi zuten. Europar azkartzen hasi zen erokeria izugarri hura, ideologia hura ulertzen zaila zen arren, Europa osoan nagusitzen hasi zen. Eliza ohartu zen eta katolikoak ere alemaniarraren aurkako erresistentzian kolaboratzen hasi ziren. Elizarentzat komunisten aurkakoa izatea ondo zen, baina, bide horretatik nazien ideologiak irentsi zezakeela ohartu zen. ■

www.lalaerretegia.com

**lala**  
sagardotegia

arkolla auzoa 33 • Hondarribia  
Tel.: 943 646 309  
info@lalaerretegia.com